



ANTZERKIA

Memoria, trauma eta antzerkia

Jaime VALVERDE

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

Testua: Unai Iturriaga, Igor Elortza eta aktoreak.**Zuzendaria:** Ximun Fuchs.**Aktoreak:** Ander Lipus, Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko R. Pescador, Erika Olaizola, Pako Revueltas.**Tokia eta data:** Arriaga Antzokia (Bilbao), 2016/11/17.

Lertedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Théâtre de Pain taldeen hirugarren elkarlanak frankismoa du mintzagai. Haatik, iraganaren presentzia obran erabatekoa iza-nik ere, oraindian jartzen da fo-kua eta bertan garatzen da ekin-tza. Izan ere, antzezlanak Estatu espainiarreko tradizio faxistak gurean eragin zuen eta eragiten duen oinazearen testigantza eman nahi du.

Ospitale bat aukeratu da meta-fora moduan –tarteka eroetxea badirudi ere–, non mediku zein gaixoek aztarna fisiko eta psiko-logikoak pairatzen dituzten. Iku-spegia zabal eta anitza erakutsi nahi izan dute auziaz, asko baitira ukitzen diren gaiak: fusila-tuak, haur lapurtuak, euskararen debekua, torturak, emakumeen zapalketa... Ez alferrik, ikerketa sakona dago sorkuntzaren az-pian –eta merezi du obraren web orrian horri eskaintzen zaion ata-

la begiratzea-. Informazio guztia-ri –ospitaleen egoerari buruzko zenbait kontu barne– antzezlan forma emateko estruktura dramati-ko konplexua eraiki bēhar izan dute. Bospasei ildo narratibo aur-kezten dira, lehena eta oraina lo-tzen dituzten pertsonaia askoren bidez. Talde lan zoragarria egiten dute guzti-guztiekin, bizitasun han-diko momentuak une hunkigarriekin tartekatuz eta trebetasun dramatiko ikaragarria erakutsiz. Istorioak, eszenak eta erritmo na-rratiboa maisuki eramanak dira, pertsonaia bakoitzaren mamuak soiltasunez deskubriazten dire-larik.

Hala ere, uste dut emandako informazioa gehiegizkoa suerta dai-tekeela tarteka eta istorio bakoitza sakonki garatzea traba dezakeela. Baino, aldi berean, dimensio itzel hori dugu obraren dohain handie-na –elkarlanotan jada ohikoa den maila tekniko bikainarekin bate-ra–, Gerra Zibilaren eta faxismoaren gaineko collage biziki aberatsa ematen baitu, nire ustez parekorik gabekoa euskal antzerkian.

Dimentsio handi horrek –kalita-tean eta edukian– herri mailako gertakaria bihurtzen du antzezla-na. Gurean arrastoa utziko duela-koan nago, bestea beste, jorratzen dituen trauma guztiak katarsi kolektiboa egiteko beta ematen duelako. Antzezlan hau gure memoria bizia da, teatroak bakarrik gorpuztu dezakeen beza-la gorpuztua.

JAZZ

Exquisitez a la polaca

Iñaki ZARATIEGI

Intérpretes: Marcin Wasilewski Trío.**Lugar:** Sala Club del Teatro Victoria Eugenia (Donostia).**Fecha:** 17/11/2016.

En 1996, el polaco Simple Acoustic Trio ganó el concurso internacional de grupos del XX Festival de Getxo. Han tardado nada menos que dos décadas en regresar y el com-bio lo forman los mismos músicos (Marcin Wasilewski –piano–, Slawomir Kurkiewicz –contrabajo– y el bate-ria Michał Miskiewicz), pero hace tiempo que se presen-

tan bajo el nombre del pri-mero, cabeza musical del in-vento.

Incluido en el jumelage de las capitalidades culturales europeas 2016 de Donostia y Wrocław, el recogido set fue una impoluta sesión de jazz a la europea, en la línea de la exquisita discográfica ECM. El terceto presentaba "Spark of Life", su cuarto álbum en ese sello y editado hace dos años, del que entresacó una parte fundamental del recital. Desde la pulida brillantez de la pieza que nombra al disco al dinamismo de "Night Train to You" o la nerviosa "Actual Proof", de Herbie Hancock.

Hubo más material propio

y ajeno, tratado siempre con entregado sentimiento lírico, y hasta físico, por el pianista de Varsovia, disciplinado y hábilmente secundado por su fiel sección: una batería detalladamente imaginativa y un fino contrabajo de eficaz pellizco rítmico. Como suele ser habitual en sus di-rectos y tras la cabalgada groove de Hancock, que ce-rró el grueso del repertorio, el bis final lo protagonizó la nana-vals "Sleep Safe And Warm", que el notable crea-dor Krzysztof Komeda com-puso para el filme "Rose-mary's Baby" ("La semilla del diablo"), de su paisano Ro-man Polanski. Puro swing y elegancia sónica.

EGITARAU PROGRAMACION
2017
ENERO/JUNIO
URTARRILA/EKAINA
Zuzendaria Artistikoa
Director Artístico
Calixto Bieito

NUERO ARRIAGA ANTZOKIA

ibao
El Correo
Euskalduna
Dial
bbk
Sociedad Económica de Amigos del País
DIMQ
mundiplus Lingua

www.teatrorriaga.com